


Izena: _____ Data: _____

ERREGEA ETA ZAPATARIA

Orain dela urte asko eta asko, bazen zapatari bat, oso **behargina**, gau eta egun zapatak josi eta josi aritzen zena. Gustura ibiltzen zen lanean, kantuka. Baina etxea erregearen jauregitik hurbil zuenez, erregea kokoteraino zegoen zapatariaren kantak entzuteaz.



Egun batean erregeak esan zion zapatariari:

-Zapatari, zapatari. Langile trebea zara, baina kantari eskasa. Tori **katanarru** hau eta zoaz hemendik urrun. Beharrik pasatu gabe bizitzeko adina diru ematen dizut nire belarrien mesederako.

Esan eta egin, zapatariak diruak hartu eta alde egin zuen, auskalo nora, jauregitik urrun, lanik egin gabe bizitzeko asmoz. Baina bere izaera ez zen ohitzen bizimodu berrira.

Orain aberatsa zenez, beti egoten zen beldurretan nork lapurtuko ote zion. Uste zuen hurbiltzen zitzaion edonor izan zitekeela lapurra; beldur zen ezer jateko, ea pozonduko zuten edo; beldur zen gutxi jateko, ez baitzuen gaixotu nahi; beldur zen asko jateko, kalterik egin ez ziezaion.

Orduan, betidanik izandako poz hura tristura bihurtu zitzaion. Erregearengana joatea erabaki zuen lehenago izandako bizimodua berreskuratzeko. Pobrea izan arren, pozik igarotzen zuen eguna zapatak konpondu eta nahi beste abestuz.

Erregearengana jo, diruak itzuli eta arazoa azaldu zion. Erregeak adi-adi entzun zituen zapatariaren azalpenak eta azkenean arrazoia zuela konturatu zen.

Orduan erregeak baietz esan zion, jarrai zezala zapatak josten. Eta bere zintzotasuna saritzeko, lantoki berria eskaini zion, hori bai...
Jauregitik urrunago: zapatari zoriontsuaren kantuk eta mailuaren tipi-tapa etengabea ez entzuteko.



Hiztegia

Behargin: langilea

Katanarru: poltsa

1. Erregea haserre zegoen

- ✓ Zapatariak zapatak apurtu zizkiolako.
- ✓ Zapatariaren kantuek molestutzen zutelako.
- ✓ Zapataria pobrea zelako.

2. Nolakoa zen zapataria?

3. Zapataria.

- ✓ Erregearen urrun bizi zen.
- ✓ Erregearen hurbil bizi zen
- ✓ Lapurren artean bizi zen.

4. Zer eman zion erregeak lan egin gabe bizi ahal izateko?

5. Zergatik aldatu zen zapatariaren izaera?

6. Zer egin zuen lehenengo bizimodua berreskuratzeko?

7. Azpimarratu egia den esaldi bakarra:

- ✓ Erregeari ez zitzaizkion gustatzen zapatariaren arropak
- ✓ Erregeak dirua eman zion zapatariari mailu berria eros zezan.
- ✓ Zapatariak erregeari dirua itzuli zion.
- ✓ Zapatariak erregearen zapatak doan konpondu zituen.

8. Zapataria: Zapatak egiten dituen pertsona.

Bertsolaria: Bertsoak

Dendaria:

Tabernaria:

Futbolaria:

9. Zuk, nagusitan zein lanbide aukeratuko zenuke? Zergatik?
